



## **PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA**

### **INFORMATIKAKO MATERIAL SUNTSIKORRA (TINTA-KARTUTXOAK, TONERRAK) HORNITZEA**

#### **XEDEA**

Kondizio-agiri honek xedetzat du honako hauek zehaztea: Partzuergoko eremuek beharko dituzten informatikako material suntsikorren hornidurak bete beharreko preskripzio teknikoak.

#### **HORNIDURAREN KONDIZIO OROKORRAK**

- Materialen hornidurak barne hartuko du materialok Partzuergoaren instalazioetan ematea, kasuan-kasuan zehaztutako kopuruetan. Partzuergoak eskubidea du zehaztapenak betetzen ez dituzten partidak itzultzeko, inolako kontrapartidarik gabe.
- Hornidura garraio egokian egingo da, eta salgaiaren hornitzailea izango da haren arduradun hura Partzuergoaren instalazioetan entregatu arte. Materialak behar bezala identifikatuta eta paketatuta entregatuko dira, kalterik egon ez dadin ondasunen gainean eta haiek erabiltzen dituzten pertsonen gainean.
- Salgaiekin batera albaran baloratuak aurkeztuko dira.
- Material-entregaren albarana sinatzeak ez du esan nahi materiala onartzen denik, ez kantitatean, ez kalitatean. Materiala gordailuan geratuko da, azterketa teknikoa egingo zaio eta azterketa horrek emaitza positiboa izan arte ez da onartutzat joko.
- Materiala akastuna bada, hornitzaileari itzuliko zaio, eta hark ordaindu beharko ditu garraio-kostuak. Hornigaia egoera onean dagoenean, hura hartzea eta horrekiko adostasuna adieraztea entregatu eta hurrengo hilabetearen barruan egingo da. Hornigaia jasotzeko moduan ez badago, berariaz jasoko da egoera hori, akatsak zuzendu ditzan edo beste hornigai bat igor dezan.
- Hornitu beharreko materialaren garraio-gastuak, enbalajeak eta abarrak esleipendunak ordaindu beharko ditu.
- Aurkeztutako enpresek hornitu beharreko material guztia eskaini beharko dute.
- Eskatutako produktuen zerrendan, artikuluko bakoitzaren urteko kontsumo zenbatetsia zehazten da. Eskatutako kopuruak gutxi gorabeherakoak dira, Ur Partzuergoak aurreko ekitaldian izandako kontsumoen arabera. Zenbatespenok gutxi gorabeherakoak dira eta, horrenbestez, kopuru horiek baino handiagoak edo txikiagoak zilegi izango dira; horrek esan nahi du Partzuergoak ez duela horretarako konpromisorik hartzen.
- Artikulu guztiek bete beharko dute kalitateari, etiketatzeari, ontziratzeari eta kontzentrazioari buruzko indarreko araudia.



- Hornigaia erabiltzeko kondizio ezin hobeetan entregatuko da, dagokion helburua kontuan izanik. Iraungitze-data duten artikuluetan argi eta garbi identifikatuko da data, eta bilgarriaren ageriko tokian; materiala eman eta hamabi hilabetekoa izango da gutxienez.
- Hornitutako produktuak jatorrizkoak izan beharko dira, eta adierazitako ekipo bakoitzerako ofizialak izango dira.
- Eskatutako produkturen bat katalogotik kanpo badago, haren baliokidea aurkeztu beharko da, marka eta bateragarritasuna adierazita.
- Hornidura Ur Partzuergoaren egoitzan egingo da (Uribitarte 8, 3. solairua, Bilbo), astelehenetik ostegunera, 8:00etatik 17:30era bitartean, eta ostiraletan, 8:00etatik 15:00etara bitartean.

## ESKAINI BEHARREKO HORNIKUNTZEN EZAUGARRIAK

Hornitu beharreko materialen ezaugarriak eta gutxi gorabeherako kopuruak kondizio-agiri honen I. eranskinean zehaztutakoak dira.

Bilbo, 2025eko ekainaren 12a

Kontratuaren kudeatzailea  
David Alonso

Informatikako sailburua  
Santiago Guillen